# KONTRATAZIO BERRIETAN DISKRIMINAZIORIK EZ!



Segurtasun eta eskubide gabeko lan eredu prekarioa ezarri nahi digute; mobilizatzeko gaitasuna eta erantzun sindikala oztopatuko dituen eredua. Patronalari bere dibidendoak eta abantailak betirako bermatuko dizkion eredu bat nahi dute.

Norabide honetan kokatzen dira azken hilabeteetan kontratazio berriekiko ugaldu diren erasoak. Besteak beste, hauek dira esanguratsuenak:

- Asmatutako lan kategoria berrien bidez soldata taula bikoitza ezartzea.
- Estatu mailako hitzarmenaren araberako lan baldintzak arautzea eta, hau ez balego, Langile Estatutuaren arabera.
- Lan baldintza onartezinak (malgutasun handia, guardiak, ordezkapenak, aparteko orduak...).
- Praktika kontratuen erabilpena, nahiz eta aurretik lanean ibili
- Antzinatasun plusa ez aitortu, ezta ordaindu ere.
- Behin-behinekotasuna, ABLEak, azpikontratazioa...

Neurri horiekin guztiekin, langile berrien eskubideak erasotzeaz harago, langile guztien lan baldintzak merketu eta prekarizatu nahi dituzte. Guztiok argi izan behar dugu hori: ez da soilik printzipioen kontu bat edo elkartasun ariketa hutsa. Enpresak, langile berriei baldintza prekarioak ezarriz, langile guztien lan baldintzak erasotu nahi ditu. Langile berriak —langileen artean egoerarik ahulena dutenak—, berri izate hutsagatik lan baldintza okerragoetan sartzen diren bitartean, zaharrek ez dituzte sekula beren lan baldintzak hobetuko. Asko jota, hurrengo borrokak langileen arteko desberdintasunak gutxitzera mugatuko dira, hortaz, enpresariak benetan bilatzen duen helburua guk geuk bermatuko dugu. Azken helburua, enplegu duina prekarioagatik ordezkatzea da, jubilazio edo kaleratzeen bidez.

LAB ez dago egoera hau onartzeko prest. Neurri bidegabeak dira, eta gainera, ez dira beharrezkoak. Langileen arteko banaketa eta talka baino ez dakarte. Kontratazio berrietan diskriminazioa aplikatzea langile guztien kontrako erasoa da, neurri horiekin langileon pobretzea bilatzen dute. Aski dela esateko garaia da.

**Kalitatezko enplegua aldarrikatzeko garaia da, langile GUZTIEN eskubideak defendatzeko garaia da. Lanpostuak bizi maila duina bermatu behar digu, ez pobrezia egonkortu. Horrela ez gara krisialditik aterako, krisi garaiko ondorioak betikotu egingo dira. Soldata duinak behar ditugu, lan baldintza duinak behar ditugu, gure eskubideak ziurtatzeko eta dagozkigun prestazio sozial duinak, doakoak eta unibertsalak bermatuak izan daitezen, orain eta etorkizunean.**

Esandako horren guztiaren defentsa enpresa honetatik hasten da.

Beraz, hamaika arrazoi ditugu esateko:
KONTRATAZIO BERRIETAN DISKRIMINAZIORIK EZ!.
ENPLEGU DUINA DENONTZAT!

ESKU Bideak Guztiontzat

LAB

# ¡NO A LA DISCRIMINACIÓN
## EN LAS NUEVAS CONTRATACIONES!



Quieren instaurar un modelo precario en el trabajo, donde prime la inseguridad y la escasez de derechos. Un modelo dirigido a frenar la movilización y respuesta sindical. Un modelo que garantice a la patronal sus dividendos y privilegios, para siempre.

Es en este contexto donde en los últimos meses se han multiplicado en las empresas los ataques a los derechos de las nuevas contrataciones. Estas son algunas de ellas:

- Doble escala salarial a través de la invención de categorias ficticias.
- Condiciones laborales según convenio estatal o de, no existir éste, Estatuto de los trabajadores.
- Condiciones abusivas (mayor flexibilidad, guardias, sustituciones, horas extras no reconocidas...)
- Aplicación generalizada del contrato de prácticas, incluso a pesar de tener experiencia laboral.
- No reconocimiento ni devengo del plus de antigüedad.
- Temporalidad, ETTs, subcontratación...

Medidas todas ellas dirigidas a abaratar y precarizar las condiciones laborales, no sólo de los nuevos, sino de todas y todos los trabajadores de la empresa. Eso lo tenemos que tener claro todas y todos: no es sólo una cuestión de solidaridad o de principios. La empresa, mediante la precarización del personal nuevo que representa el eslabón más débil, realmente busca atacar las condiciones laborales de toda la plantilla, sin que parezca un ataque a todas y todos. Mientras las y los trabajadores nuevos, sólo por el hecho de serlo, entren con peores condiciones laborales, los antiguos no van a mejorar nunca las suyas. En todo caso, las futuras luchas se limitarán a ir disminuyendo esas desigualdades, de manera que, el objetivo real que busca el empresario se lo habremos garantizado nosotras y nosotros mismos. El objetivo final, es sustituir empleo digno por precario, vía jubilaciones o despidos.

LAB no está dispuesto a aceptar esta situación. LAB no va a aceptar medidas innecesarias e injustas, que sólo buscan la división y confrontación entre trabajadoras y trabajadores y que suponen un ataque y un empeoramiento de las condiciones laborales de todas y todos. Es hora de decir ¡basta ya!

**Es hora de reivindicar un empleo de calidad, de defender nuestros derechos para TODAS y TODOS. El empleo debe garantizarnos un nivel de vida digno, no perpetuar la pobreza. Así no se sale de la crisis, se perpetua. Necesitamos salarios dignos y condiciones laborales dignas para garantizar nuestros derechos y unas prestaciones sociales gratuitas, universales y de calidad. Para hoy y para el futuro.**

Pero todo esto empieza por su defensa en esta empresa.

ASÍ PUES, TENEMOS MULTITUD DE RAZONES PARA DECIR:
¡NO A LA DISCRIMINACIÓN EN LAS CONTRATACIONES NUEVAS!
¡EMPLEO DIGNO PARA TODAS Y TODOS!

ESKU BIDEAK GUZTIONTZAT

LAB